

Enplegua sustatzeko astea bigarren aldiz antolatuko da aurten; eta iazko zifra, 1.000 parte-hartzaile, gainditzea ere espero dute

Hileko 22tik 25era antolatuko da, eta iazko zifra, 1.000 parte-hartzaile, gainditzea ere espero dute.

Iaz lehenengo aldiz antolatu zen Enplegua Sustatzeko Astea, Santurtzin; eta oso harrera ona izan zuen. Udalak, ekimenaren bitartez, «santurtziar langabeen dinamizazioa eta laneratzea bultzatu» nahi izaten zuen. Aurten berriro ere antolatuko da, hileko 22tik 25era, Dorre Etxean. Iazko datuak oso onak dira: ia milako bat pertsona etorri ziren Dorre Etxera, ekitaldi programatuetan parte hartzera. Hori dela eta, Santurtziko Udaletxeak «berriro ere egin du formatu beraren aldeko apustua, eta zenbait egunetan santurtziarrak CVak ematera edo laneko alderdi interesgarriei buruzko galderak egitera etorri ahalko dira».

Ekimen horrekin batera, beste batzuk ere abian jarri dira: esaterako, Enplegu Plana edo prestakuntza-ikastaroak. Ikastarook Santurtziko Behargintza zentroan egiten ari dira gaur egun.

Astearen lehenengo edizioan dozenaka agente bildu ziren, besteak beste, enpresakoak, erakundeetakoak edo partikularrak. Ekitaldiak diseinu bera izango du aurten ere, iazko harrera bikaina dela-eta.

Joseba Ramos-ek, Ogasun eta Ekonomia Sustapenerako zinegotziak, azaldu du informazio-guneak, solasaldiak, CVa trukatzeko guneak, hitzaldiak eta lehen pertsonan kontatutako esperientziak izango direla jardueretako batzuk. Prestatu den programazioaren arabera, ekitaldiak asteartetik ostegunera iraungo du.

Programa garatzerakoan xede-hartzailetzat hartu dira enplegarritasuna hobetu nahi duten pertsonak edota pertsona langabeak, eta «bereziki lagundu nahi izan zaie laneratzeko zailtasun handienak dituzten taldeei». Parte har dezaketen beste batzuk ekintzaileak edo eraketa berriko enpresak dira.

AZAROAK 22, ASTEARTEA

Higarillo gelan, 9:30etik 13:30era

- Lana dinamizatzeko gunea: ostalaritzako eta tokiko merkataritzako sektoreei zuzendutako curriculumak jasotzea. Santurtziko Merkatarari Batuek, Santurtziko Gastronomiak eta Abra ostalaritzak parte hartuko dute
- Enplegu-zerbitzuak eta beste erakunde batzuk: Santurtziko Behargintza, Lanbide, Cáritas, Bilboko Portuko Agintaritzak eta Conpybasque

Rompeolas gelan, jardunaldi osoan:

- Prestakuntza-zentroen informazio-gunea

Bolintxis gelan, 12:00etatik 13:00etara

- Hitzaldia: *Salidas profesionales ligadas a la rehabilitación energética del inmueble* (Lan-aukerak higiezinaren energia-egoera hobetzeko arloan); Conpybasque-ren eskutik

Mamariga Kulturgunean, 17:00etatik 19:00etara

- Tailerra: *Marca Personal y Talento* (Norberaren marka eta talentua). Aldez aurretik izena eman behar da Santurtziko Behargintzan

AZAROAK 23, ASTEAZKENA

Higarillo gelan, 9:30etik 13:30era

- Lana dinamizatzeko gunea: ostalaritzako eta tokiko merkataritzako sektoreei zuzendutako curriculumak jasotzea. Santurtziko Merkatarari Batuek, Santurtziko Gastronomiak eta Abra ostalaritzak parte hartuko dute
- Enplegu-zerbitzuak eta beste erakunde batzuk: Santurtziko Behargintza, EmakumeEkin eta Lanbide

Rompeolas gelan

- Prestakuntza-zentroen informazio-gunea

Bolintxis gelan, 11:00etatik 14:00etara

- *Coaching* tailerra: *Personalidad y Emprendizaje* (Nortasuna eta ekintzailletza); Noûs-en eskutik

El Calero gelan, 11:00etatik 12:00etara

- Hitzaldia: *Líneas de apoyo al emprendimiento* (Ekintzailletzari laguntzeko ildoak); CaixaBank-en eskutik

Rompeolas gelan, 18:00etatik 20:30era

- Tailerra: *Nuevos aspectos fiscales ligados a las diferentes formas jurídicas* (Forma juridikoen arabeko zerga-alderdi berriak). Aldez aurretik izena eman behar da Santurtziko Behargintzan

Mamariga Kulturgunean, 16:00etatik 20:00etara

- Marketinari buruzko tailerra: *Cómo vender más* (Nola handitu salmentak). Aldez aurretik izena eman behar da Santurtziko Behargintzan

AZAROAK 24, OSTEGUNA

Higarillo gelan, 9:30etik 13:30era

- Lana dinamizatzeko gunea: ostalaritzako eta tokiko merkataritzako sektoreei zuzendutako curriculumak jasotzea. Santurtziko Merkataritza Batuek, Santurtziko Gastronomiak eta Abra ostalaritzak parte hartuko dute
- Enplegu-zerbitzuak eta beste erakunde batzuk: Santurtziko Behargintza, Lanbide, Gehilan 2000, Gazteenpresa eta Bilboko Portuko Agintaritza

Rompeolas gelan, egun osoan: prestakuntza-zentroen informazio-gunea

Bolintxis gelan, 10:00etatik 11:30era

- Hitzaldia: *Perfiles profesionales demandados y procedimientos de selección* (Gehien eskatzen diren lanbide-profilak eta hautaketa-prozedurak); Bilboko Portuko Agintaritzaren eskutik

12:00etatik 13:30era

- Hitzaldia: *Elkargi, pieza clave en la financiación de pymes y emprendedores* (Elkargi, ETEen eta ekintzaileen finantziatorako gakoak); Elkargiren eskutik

El Calero gelan, 12:00etatik 13:00etara

- Hitzaldia: *Cómo financiar tu proyecto con Gazteenpresa* (Nola finantzatu zure proiektua Gazteenpresa-rekin); Gazteenpresaren eskutik

Rompeolas gelan, 18:00etatik 20:30era

- Tailerra: *Posicionamiento en la Red* (Sareko posizionamendua). Aldez aurretik izena eman behar da Santurtziko Behargintzan

Mamariga Kulturgunean, 16:00etatik 20:00etara

- Tailerra: *Teoría y Práctica de las Franquicias* (Frankiziak: teoria eta praktika). Aldez aurretik izena eman behar da Santurtziko Behargintzan

AZAROAK 25, OSTIRALA

Higarillo gelan, 9:30etik 13:30era

- Lana dinamizatzeko gunea: ostalaritzako eta tokiko merkataritzako sektoreei zuzendutako curriculumak jasotzea. Santurtziko Merkataritza Batuek, Santurtziko Gastronomiak, Ferrovial Zerbitzuek eta Abra ostalaritzak parte hartuko dute
- Enplegu-zerbitzuak eta beste erakunde batzuk: Santurtziko Behargintza eta Lanbide

Rompeolas gelan, egun osoan: prestakuntza-zentroen informazio-gunea

Bolintxis gelan, 11:00etatik 14:00etara

- *Coaching* tailerra: *Crece y emprender* (Hazi egitea eta ekitea); Noûs-en eskutik

El Calero gelan, 11:00etatik 13:00etara

- «Kafeekin» tailerra: beste ekintzaile batzuekin elkartzeko gunea; Zurekin Emprende-ren eskutik